SEGURTASUN SAILA
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Kudeaketa Ekonomikoaren eta
Baliabide Orokorren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión Económica y
Recursos Generales

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA
PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS

MEZULARITZA ZERBITZUA
SERVICIO DE MENSAJERÍA

AURKIBIDEA
INDICE

1. Xedea eta aplikazio-eremua
   Objeto y Campo de Aplicación

2. Zerbitzuaren ezaugarriak
   Características del servicio

3. Zerbitzu motak
   Tipo de servicios

   3.1. Premiazko zerbitzua
   Servicio urgente

   3.2. Euskal Autonomia Erkidegoko Zubi Zerbitzua
   Servicio Puente de la Comunidad Autónoma del País Vasco

   3.3. Estatuko 24 orduko zerbitzua*Servicio*
   Estatal 24 Horas

   3.4. Nazioarteko zerbitzua
   Servicio Internacional

   3.5. ADR zerbitzu bereziak
   Servicios especiales ADR

4. Giza baliabideak
   Recursos Humanos

5. Baliabide materialak
   Recursos materiales

6. Gorabeherak eta zigorrak
   Incidencias y penalizaciones

7. Aseguruak
   Seguros

8. Datuen babesa
   Protección de Datos

1. Xedea eta aplikazio-eremua

Espediente honen xedea da Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak eskatutako zerbitzuak emateko mezularitza-sektorean espezializatutako enpresak hautatzeko beharrezkoak diren baldintza bereziak ezartzea.

Mezularitza-zerbitzuak kontratatu nahi dira, bai estatukoak, bai Euskal Autonomia Erkidegoaren barrukoak, bai nazioartekoak. Zerbitzu horiek Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak zerbitzatzen dituen polizia- eta administrazio-bulegoetako edozeinetatik eskatu ahal izango dira.

2. Zerbitzuaren ezaugarriak

Mezularitza-zerbitzuak motoz, furgonetaz, furgoiz edo ibilgailu egokiz egin ahal izango dira, garraiatu beharreko dokumentazioaren edo paketeriaren zerbitzuaren, pisuaren eta/edo neurrien arabera.

Enpresa kontratistak Administrazioak urtean zehar dituen ordutegiak bete beharko ditu gutxienez.

Ohiko ordutegia 08:00etatik 17:00etara izango da, biak barne, astelehenetik ostegunera; ostiraletan eta udako lanaldian ordutegia 8: 00etatik 14:30era izango da.

Bidalketekin batera entrega-albaran bat aurkeztu beharko da, honako datu hauek jasoko dituena: jatorrizko zentroa eta bidalketaren helbidea, bidalketaren dibisioa/arloa/pertsona igorlea, data, bidaltzailearen sinadura eta bidalketaren eskatzailea.

Enpresa kontratistak hilero entregatuko du, euskarri informatikoan edo artxibo informatizatuan, aldi berean kontratatutako mezularitza-mugimenduen zerrenda – data, kontzeptua, kilometro-kopurua eta zenbatekoa – edo kode bakar eta konfidentzial baten bidez emango du adierazitako informazioa kostu gehigarririk gabe emateko gai den sistema informatiko baterako sarbidea.

Fakturazioa hilero egingo da, eta zerbitzu bakoitzaren harrera-zentroak baliozkotutako albaran adierazle guztiak erantsiko zaizkio.

Enpresa kontratistak telefono-zenbaki bakarra izan beharko du abisuak jasotzeko, edo helbide elektroniko bat.

1. Objeto y Campo de Aplicación

El objeto del presente expediente es establecer las condiciones particulares necesarias para la selección de empresas especializadas en el sector de mensajería para la prestación de los servicios solicitados por el Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco.

Se pretende la contratación de servicios mensajería, tanto estatal como dentro de la Comunidad del País Vasco e internacional, que podrá ser requerido desde cualquiera de las diversas dependencias policiales y administrativas a las que presta servicio la Consejería e Seguridad del Gobierno Vasco.

2. Características del Servicio

Los servicios de mensajería se podrán realizar en moto, furgoneta o furgón o vehículo apropiado, dependiendo del servicio, peso y/o medidas de la documentación o paquetería a transportar.

La empresa contratista tendrá que cubrir como mínimo los horarios que tenga la Administración durante las diferentes épocas del año.

El horario habitual será de 8 a 17 horas, ambas inclusive, de lunes a jueves; los viernes y en jornada de verano el horario será de 8 a 14,30 horas.

Los envíos deberán acompañarse de un Albarán de entrega en el que se reflejarán los siguientes datos: Centro de procedencia y dirección del envío, División/Área/persona remitente del envío, fecha, firma del remitente y solicitante del envío

La empresa contratista hará entrega mensualmente en soporte informático, o archivo informatizado, la relación de movimientos de mensajería contratados durante el mismo periodo – fecha, concepto, recorrido nº de kilómetros e importe - o facilitará el acceso a través de un código único y confidencial a un sistema informático que sea capaz de ofrecer la información indicada sin coste adicional alguno.

La facturación se realizará mensualmente, y a la misma se acompañarán todos los albaranes indicativos y validados por el centro de recepción de cada servicio.

La empresa contratista deberá disponer un único número de teléfono para la recepción de los avisos o una dirección de correo electrónico

Dokumentua/paketea jasotzearen eta/edo ematearen fakturazio osagarria aurreikusten da lekua probintziako hiriburu bati ez dagokionean, betiere enpresa kontratistak hobekuntzen barruan eskaini ez badu eta furgonetako garraioaren kontzepturako eskainitako prezio berean.

3. Zerbitzu-mota

Kontratistak jarraian zerrendatzen eta sailkatzen diren zerbitzuak eman beharko ditu:

3.1. Berehalako zerbitzua

Berehalako zerbitzuaren bidez, dagokion dokumentazioa edo paketeria jasotzen da, abisua jaso eta gehienez ere ordubeteko epean, eta berehala entregatzen da, ahalik eta lasterren.

Kontzeptu hauek bereiziko dira fakturaziorako:

- **Bidalketa bakoitzeko prezio finkoa**. Prezio finko bat fakturatuko da zerbitzua eskatzen zaion entrega-helbide bakoitzeko.

- **Joan-etorrietarako Euro/Km**. Fakturatu beharreko kilometro-kopurua zehazteko, honako hauek hartuko dira kontuan: dokumentua/paketea jasotzen den tokitik gertuen dagoen probintzia-hiriburuaren, biltzeko lekuaren, entregatzeko lekuaren eta jatorrizko probintziako hiriburu berera itzultzearen arteko distantzia.

Kontzeptu horietarako, enpresa lizitatzaileek prezio desberdinak eskaini beharko dituzte erabilitako garraio-ibilgailuaren arabera: motorra, furgoneta edo furgoia, dagokion proposamen ekonomikoaren ereduaren arabera.

Berehalako zerbitzuetarako, Administrazioak zerbitzua dela-eta autobideko bidesariengatik sor daitezkeen gastuak ordainduko dizkio enpresa kontratistari, eta dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko du albaranarekin batera.

3.2. Euskal Autonomia Erkidegoko Zubi Zerbitzua

Zerbitzu honetan dokumentazioa edo paketeria jasotzen da abisuaren lanaldiaren barruan, eta bilketaren muga 17 ordukoa da. Hurrengo eguneko 16:30ak baino lehen emango dira, urritik maiatzera bitartean, eta 14:30ak baino lehen, ekainetik irailera bitartean. Enpresak

Se contempla la facturación complementaria de la recogida y/o entrega del documento/paquete cuando el lugar no corresponda con una capital de provincia, siempre y cuando no haya sido ofertado por la empresa contratista dentro de las mejoras y a un precio idéntico al ofertado para el concepto transporte en furgoneta.

3. Tipo de Servicios

La empresa que contratista deberá prestar los diferentes servicios que se relacionan y clasifican a continuación:

3.1. Servicio Inmediato

El servicio inmediato consiste en la recogida de la documentación o paquetería de la que se trate en el plazo máximo de una hora desde el aviso, y su entrega inmediata a través de la ruta más rápida que fuera posible.

Se diferenciarán los siguientes conceptos para la facturación:

- **Precio Fijo por Envío.** Se facturará un precio fijo por cada una de las Direcciones de entrega para las cuales sea requerido el servicio.

- **Euro/Km de Desplazamiento.** El número de Kilómetros a facturar se determinará como resultado de la distancia entre la capital de provincia más cercana al lugar de recogida del documento/paquete, el lugar de recogida, el lugar de entrega y su regreso a la misma capital de provincia de origen

Para estos conceptos las empresas licitadoras deberán ofertar precios diferentes en función del vehículo de transporte utilizado: moto, furgoneta o furgón de acuerdo con el Modelo de Proposición Económica correspondiente.

Para los Servicios inmediatos la Administración abonará a la empresa contratista los gastos por peaje de autopista que pudieran ocasionarse con motivo del servicio, debiendo presentar el justificante correspondiente junto con el albarán.

3.2. Servicio Puente de la Comunidad Autónoma del País Vasco

Este servicio consiste en la recogida de la documentación o paquetería, dentro de la jornada del aviso, siendo el límite de recogida las 17 horas. Su entrega se realizará antes de las 16,30 horas del día siguiente entre los meses de octubre-mayo y antes de las 14,30 entre junio

bidalketa bakoitzeko prezio finko bat adierazi beharko du, dagokion proposamen ekonomikoaren ereduaren arabera.

3.3. Estatuko 24 orduko zerbitzua

Abisuaren lanaldiaren barruan dokumentazioa edo paketeria jasotzean datza, eta bilketaren muga 17 ordukoa da. Gehienez ere 24 orduko epean entregatuko dira penintsulako edozein tokitan.

Kontzeptu hauek bereiziko dira fakturaziorako:

- **Bidalketa bakoitzeko prezioa**. Zerbitzu horretarako, enpresa lizitatzaileek prezio desberdinak eskaini beharko dituzte, bidali beharreko dokumentazioaren edo paketeriaren pisaketaren arabera.
- **Zona: Estatukoa/Penintsulakoa (EAE izan ezik).** Zerbitzu bakoitzeko prezio finkoa ezarri beharko da 0 eta 0,9 kg arteko bidalketa egiteko; 1 eta 3,9 kg artekoa; 4 eta 15,9 kg artekoa, 16 eta 99,9 kg artekoa, eta 100 eta 500 kg artekoa, 10 kg arteko errekargu bat tarte berri bakoitzerako.

3.4. **Nazioarteko zerbitzua**

Zerbitzu hau dokumentazioa edo paketeria jasotzean eta beste estatu batzuetan entregatzean datza.

Jasotzeko gehieneko ordua abisua ematen den lanaldiko 19 orduak izango dira.

Entrega 48 orduko gehieneko epean egingo da, Europarako zerbitzuetarako, 72 ordukoa Ameriketarako eta 5 egunekoa munduko gainerako herrialdeetarako.

Bidalketa bakoitzeko prezio finkoa

Enpresa lizitatzaileek prezio desberdinak eskaini beharko dituzte Europan, Amerikan eta munduko gainerako herrialdeetan entregak egiteko, dagokion proposamen ekonomikoaren ereduaren arabera.

Destino bakoitzerako, enpresa lizitatzaileek prezio finkoa eskaini beharko dute kg 1 arteko pisua duten bidalketetarako.

1. egunetik aurrera. Kg pisuko errekargu bat eskainiko da 0,5 kg gehigarri bakoitzeko.

3.5. **ADR zerbitzu bereziak**

y septiembre. La empresa deberá señalar un precio fijo por envío de acuerdo con el Modelo de Proposición Económica correspondiente.

3.3. Servicio Estatal 24 Horas

Consiste en la recogida de la documentación o paquetería, dentro de la jornada del aviso, siendo el límite de recogida las 17 horas. Su entrega se realizará en un tiempo máximo de 24 horas en cualquier punto del Estado peninsular.

Se diferenciarán los siguientes conceptos para la facturación:

- **Precio por Envío.** Para este servicio las empresas licitadoras deberán ofertar precios diferentes en función del pesaje de la documentación o paquetería a enviar.
- **Zona: Estatal / Peninsular (excepto C.A.V).** Debiendo establecerse un precio fijo por servicio para un envío de entre 0 y 0,9 Kg; entre 1 y 3,9 kg; entre 4 y 15,9 Kg, entre 16 y 99,9 Kg y entre 100 y 500 Kg. un recargo para cada nuevo tramo de hasta 10 Kg.

3.4. Servicio Internacional

Este servicio consiste en la recogida de la documentación o paquetería y su entrega en otros Estados.

La hora límite de recogida serán las 19 horas de la jornada en que se da el aviso.

La entrega se realizará en el plazo máximo de 48 horas, para servicios a Europa, 72 horas para entregas en América y 5 días para servicios en el resto del mundo.

Precio Fijo por Envío

Las empresas licitadoras deberán ofertar diferentes precios para las entregas en Europa, América y resto del mundo, de acuerdo con el Modelo de Proposición Económica correspondiente.

Para cada uno de los destinos las empresas licitadoras deberán ofertar el precio fijo para envíos cuyo peso sea hasta 1 Kg,

A partir del 1er. Kg de peso se ofertará un recargo por cada 0,5 Kg adicional,

3.5. Servicios especiales ADR

Beren izaeragatik garraiatu eta tratatzeko neurri bereziak behar dituzten zerbitzu guztiak jaso eta entregatzean datza, eta ezinbestekoa da ADR baimena izatea (salgai arriskutsuen garraiorako Europako Akordioa).

Consiste en la recogida y entrega de todos aquellos servicios que, por su naturaleza, requieran unas medidas especiales para su transporte y tratamiento, siendo imprescindible estar en posesión del permiso ADR (Acuerdo Europeo para transporte de mercancías peligrosas).

Lagin biologikoak jaso eta ematea.

Zerbitzua eskatzen denean, zehazten diren zentroetako lagin biologikoak jasoko dira (gaur egun, Erandioko zentrala eta Oiartzungo zentrala), eta zehazten diren puntuetan entregatuko dira. Bilketak aldez aurretik hitzartuta egongo dira eta, hala ez bada, biltzeko gehienezko denbora 45 minutukoa izango da.

Kontratistak hotz-katea bermatu beharko du (zerbitzurako egokitutako hozkailuekin edo hotz-katea bermatzen duen ibilgailuarekin), une oro 2 eta 8 ºC arteko tenperatura-baldintzetan.

Recogida y entrega de muestras biológicas.

Cuando el servicio sea requerido se recogerán muestras biológicas de los centros que se determine (actualmente Central de Erandio y Central de Oiartzun) y se entregarán en los puntos que se concreten. Las recogidas estarán previamente concertadas y, cuando no sea así, el tiempo máximo de recogida será de 45 minutos.

El contratista deberá garantizar la cadena de frio (bien con neveras acondicionadas para el servicio o con vehículo que garantice la cadena de frío), bajo unas condiciones de entre 2 y 8 ºC de temperatura en todo momento.

ADR baimena behar duten bestelako laginak jaso eta ematea

Kontzeptu hauek bereiziko dira fakturaziorako:

Recogida y entrega de otro tipo de muestras que requieran el permiso ADR

Se diferenciarán los siguientes conceptos para la facturación:

ADR BIDEZKO ZERBITZU ARRUNTA

Enpresa lizitatzaileak prezio itxiak aurkeztuko ditu zerbitzuetarako:

- Hiri-zerbitzua
- Hiriarteko zerbitzua
- Ibilbide luzeko zerbitzuen kilometroko prezioa

SERVICIO ORDINARIO CON ADR

La empresa licitante presentará diferentes precios cerrados para los servicios:

- Servicio urbano
- Servicio interurbano
- Precio kilómetro para servicios de largo recorrido

ADR BIDEZKO APARTEKO ZERBITZUA

ADR duen zerbitzu berezia jaiegunetan, gaueko ordutegietan eta/edo ezohiko egoeretan eskatzen denean, aparteko zerbitzutzat hartuko da, eta beste tratamendu bat jasoko du.

Enpresa lizitatzaileak prezio itxiak aurkeztuko ditu zerbitzuetarako:

- Hiri-zerbitzua
- Hiriarteko zerbitzua
- Ibilbide luzeko zerbitzuen kilometroko prezioa

SERVICIO EXTRAORDINARIO CON ADR

Cuando el servicio especial con ADR sea solicitado en días festivos, horarios nocturnos y/o situaciones extraordinarias, será conceptuado como servicio extraordinario y recibirá un tratamiento distinto

La empresa licitante presentará diferentes precios cerrados para los servicios:

- Servicio urbano
- Servicio interurbano
- Precio kilómetro para servicios de largo recorrido

4. **Giza baliabideak**

4. Recursos humanos

Esleipendunak pertsona kopuru egokia eta beharrezkoa bideratu beharko du kontratutik eratorritako betebeharrei behar bezala erantzuteko.

El adjudicatario deberá destinar el número de personas, oportuno y necesario, para la correcta atención de las obligaciones derivadas del Contrato.

Kontratua gauzatzera atxikitzen diren langileek enpresaren antolamendu-egituran sartuta egon beharko dute, bai berezko bitarteko gisa, lan-harreman baten bidez, bai dagokion TAED kontratuaren bidez (ekonomikoki mendekoa den langile autonomoa), SEPEn behar bezala erregistratuta.

El personal que adscriba a la ejecución del contrato deberá estar integrado en la estructura organizativa de la empresa, bien como medio propio a través de una relación laboral, o bien a través del correspondiente contrato TAED (Trabajador Autónomo Económicamente Dependiente) debidamente registrado en el SEPE

Kontratatzen diren zerbitzuak lan-arloan indarrean dagoen araudiari, sektoreko hitzarmen kolektiboari eta Gizarte Segurantzaren legeriari zorrotz lotuta bete beharko dira. Era berean, kontratatutako zerbitzuek bete egingo dituzte enpresa esleipendunak lan-arriskuen prebentzioan indarrean dituen araudiak, zerbitzua ematen duten langileekiko lan-harremanetan aplikagarriak direnak.

Los servicios que se contraten deberán cumplirse con estricta sujeción a la Normativa vigente en materia laboral, Convenio Colectivo del Sector y la Legislación de la Seguridad Social. Asimismo, los servicios contratados cumplirán igualmente las Normativas vigentes en Prevención de Riesgos Laborales que, por parte de la empresa adjudicataria, resulten de aplicación con respecto a las relaciones laborales con los trabajadores que presten el servicio.

Enpresa kontratistak zerbitzua ematen duten langileen zerrenda aurkeztu beharko du. Enpresa kontratistak langile horien ordezkapena ere jakinarazi beharko du.

La empresa contratista deberá presentar un listado del personal que, regularmente preste el servicio. La sustitución de este personal, por parte de la empresa contratista, deberá ser también comunicada.

5. Baliabide materialak

5. Recursos materiales

Esleipendunak behar adina ibilgailu izan beharko ditu, bai eta lizitazio hau eragin duten mezularitza- eta garraio-lanetarako behar diren tresnak ere. Ibilgailu guztiak eta beharrezkoak diren tresnak enpresa kontratistaren antolaketa-egituran txertatuko dira, bai bitarteko propio gisa, bai garraiolari autonomoarekin egindako TAED kontratuen bidez kontratua gauzatzeko atxikipenaren bidez. Baimenak, lizentziak eta gainerako legezko betebeharrak (aseguruak eta berrikuspenak, etab.) garraiolariaren kontura izango dira, eta indarrean eta eguneratuta egon beharko dute zerbitzuak irauten duen bitartean.

El adjudicatario deberá contar con una flota de vehículos suficientes, así como con las herramientas necesarias para las labores de mensajería y transporte que motivan esta licitación. La totalidad de los vehículos, así como de las herramientas necesarias, estarán integrados en la estructura organizativa de la empresa contratista; bien como medio propio o bien a través de su adscripción a la ejecución del contrato mediante los correspondientes contratos TAED con el transportista autónomo, siendo por su cuenta los permisos, licencias y demás obligaciones legales; tales como Seguros y revisiones, etc…que deberán estar vigentes y actualizadas durante el tiempo que dure la prestación del servicio.

Nazioarteko zerbitzuaren espezialitateak

Especialidades del Servicio internacional

Nazioarteko zerbitzuei dagokienez, enpresa kontratistaren kontura izango dira baimenak, lizentziak, aseguruak eta gainerako legezko betebeharrak, eta indarrean eta eguneratuta egon beharko dute zerbitzua ematen den bitartean.

Respecto de los servicios internacionales, será por cuenta de la empresa contratista los permisos, licencias, seguros y demás obligaciones legales, que deberán estar vigentes y actualizadas durante el tiempo que dure la prestación del servicio.

6. Gorabeherak eta zigorrak

Esleipendunak konpromisoa hartuko du organo kontratatzaileari kalte-ordaina emateko, ematen zaizkion paketeetan izandako gorabehera eta galerengatik, baremo honen arabera:

- Paketeria nazionala galtzeagatik: 20 €
- Nazioarteko paketeria galtzeagatik: 60 €

- Balio bereziko paketeria galtzeagatik, aurrez egiaztatua eta aitortua: Bere salmenta-balioa.
- Estatuko presako bidalketa-epetik kanpo entregatzeagatik: zenbatekoa itzultzea.
- Nazioarteko presako bidalketa-epetik kanpo entregatzeagatik: zenbatekoa itzultzea.

- Dokumentazioa edo paketeria berehala edo presako zerbitzuan ordubete beranduago jasotzen bada, zerbitzu horren kostuaren bosten bati dagokion zenbatekoarekin zigortuko da.

Kalte-ordain horiek kontratistak ordainduko ditu, gorabehera ebatzi ondorengo hileko fakturetan horien zenbatekoa deskontatuta.

7. Aseguruak

Zerbitzua emateari atxikitako ibilgailu guztiek nahitaez harpidetu beharreko erantzukizun zibileko asegurua eta okupatzaileen banakako istripu-asegurua izan beharko dituzte. Aseguru horretan, gutxienez modelo bakoitzeko bidaiari-bolumen osoa aseguratuko da, ofizialki aitortutako aseguru-etxearekin sinatuta. Poliza horien harpidetzaren kopia kontratua formalizatu aurretik entregatu beharko da.

Era berean, istripu- eta heriotza-poliza bat kontratatuta eta indarrean izango du, bertako langile guztiak estaltzeko, indarrean dagoen sektoreko hitzarmen kolektiboan ezarritakoaren arabera.

Halaber, aseguru bat eduki beharko du garraiatutako salgaiari eta erantzukizun zibilari dagokienez, gutxienez Administrazio Klausula Berezien Agirian adierazitako zenbatekoarekin.

8. Datuen babesa

Esleipendunak konpromisoa hartzen du indarrean dagoen Datuak Babesteari buruzko Legerian xedatutako guztia betetzeko, bai legeria orokorrean, bai aplikagarri zaion legeria

6. Incidencias y penalizaciones

El adjudicatario se comprometerá a indemnizar al Órgano contratante por las incidencias y extravío de los paquetes que se le confíen, con arreglo al siguiente baremo:

- Por el extravío de paquetería nacional: 20 €
- Por el extravío de paquetería internacional: 60 €
- Por el extravío de paquetería de especial valor acreditado y previamente declarado: Su valor venal.
- Por la entrega fuera de plazo de envío urgente nacional: Devolución de su importe.
- Por la entrega fuera de plazo de envío urgente internacional: Devolución de su importe.
- Por demora en la recogida de documentación o paquetería, establecido en un plazo máximo de una hora, en el servicio inmediato/urgente, se penalizará con un importe que corresponderá a un quinto del coste del servicio concreto.

El abono de estas indemnizaciones se realizará por la contratista, mediante el descuento del importe de las mismas en las facturas mensuales inmediatamente posteriores a la resolución de la incidencia.

7. Seguros

Todos los vehículos adscritos a la prestació servicio, deberán disponer de Seguro Responsabilidad Civil de Suscripción Obligatoria y Seguro de Accidentes Individual de Ocupantes cual, el número de plazas aseguradas, sea mínimo por la totalidad del volumen de pasaje cada modelo, suscrito con compañía de se reconocida oficialmente. La copia de la suscripc estas pólizas se deberá entregar con anteriorida formalización del contrato.

Asimismo, tendrá contratada y vigente una Pól accidentes y fallecimiento; para la cobertura de t personal propio, en los términos establecidos vigente Convenio Colectivo del sector, que resu aplicación.

También deberá disponer de un seguro, respecto mercancía transportada y de la responsabilidad como mínimo por el importe indicado en el Plie Cláusulas Administrativas Particulares.

8. Protección de Datos

El adjudicatario se compromete a cumplir to dispuesto en la vigente Legislación sobre Protecc Datos, tanto en la general como en la específica sea de aplicación, y actuar de acuerdo co

espezifikoan, eta Eusko Jaurlaritzaren jarraibideen arabera jokatzeko; nolanahi ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 09/2017 Legean aurreikusitako Esku Hartzeko Ahalak gordetzen ditu.

instrucciones del Gobierno Vasco; que se reser todo caso, las Potestades de Intervención previs la Ley 09/2017, de 08 de noviembre, de Contrat Sector Público.